



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko martxoaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko martxoaren bostean, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, HEGUY Antton.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : MATEO Jean François.

Deialdiaren eguna : 2024ko otsailaren 29a

Afitxatze eguna : 2024ko otsailaren 29a

4. ERABAKIA: « ORTZAIZEKO LEKU ANITZEKO GAE » GERORA ANTOLATZEKO EREMUAREN (GAE/ZAD) PERIMETROAREN ONARPENA (2.3 nomenklatura)

Auzapezak oroitarazi du, 2014ko martxoaren 24ko Frantziako ALUR legea indarrean sartu denetik Gerora Antolatzeako Eremuak (GAE/ZAD) tokiko herri elkargoek hartu erabakiz sortzen direla, elkargo horrek THP eskumena izanik, eta gure kasuan Euskal Hirigune Elkargoak.

Azken urteotan, gure herriak herri erdigunearen eta 918 errepedearen inguruko hirigintza garapena ezagutu du, eta horiekin batera etxeak ere eraiki dira jadanik existitzen ziren etxe multzoen inguruan eta eremu berrietan baita ere. Frantziako klima eta erresilientzia deritzon legearen eraginez lur funtsen kontsumoa murriztu behar den garai hauetan, non elkargoko hirigintza dokumentu berria egitekotan den eta lur funtsen prezioak emendatzen ari diren, herriak esku hartu behar du, edo gutxienez behaketa lana egin, etxebizitza eta lur funtsen salerosketa ekintzak burutzen diren eremu estrategikoetan. Behaketa eta esku hartze horiei esker, herriak bere beharrei ihardesteko ahalmenak izan beharko lituzke, besteak beste ekipamendu desberdinen arteko loturak bermatuz, etxebizitzak ekoitziz, bertako biztanleen eta etorkinen etxebizitza-ibilbidea erraztuz.

Helburu horiek direla-eta, herriak Gerora Antolatzeako Eremua osatu nahi du, identifikatu diren eremuetan lehentasunez erosteko eskubidea ezarriz, orotara 25,8 ha-ko eremu batean.

1. Frantziako Hirigintza kodeko L. 210-1, L.212-1 eta ondorengo GAE-ei buruzko artikulua ikusirik, eta L. 213-3 artikulua, lehentasunez erosteko eskubideari eta horren delegatzeari buruzkoa,

2. Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kodea, eta bereziki L. 2122-22 artikulua,

Herri Biltzarrak:

- **ONARTU DU**, «Ortzaizeko Leku anitzeko GAE» sortzea, honako erabakiaren eranskinean agertzen den bezala.
- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariari GAE baten sortzea eskatzeko, erantsia den planoko lur sailletara mugatua, eta orotara 25,8 ha-koa dena.
- **ESKATU DU**, Ortzaize herria izan dadila GAE horren lehentasunez erosteko eskubidearen jabe.
- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari lehentasunez erosteko eskubidea egikaritzeko edo horren egikaritzea delegatzeko ondasun alienazio baten kariatara.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balizko boz kopurua : 12

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko martxoaren 5ean

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/03/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/03/08an.